

BALIO PROPOSAMENA



“80 urtetik gorako 850.000 pertsona baino gehiago bakarrik bizi dira Espainian”


Espainian bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako bi milioi pertsonen muga gainditu du Espainiak. Pertsona bakarreko 4,7 milioi etxean ia erdia dira, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) astearte honetan argitaratu dituen 2018ko datuen arabera. Horietatik 850.000 baino gehiagok 80 urte edo gehiago dituzte, eta gehienak emakumeak dira: 662.000.

EL PAIS (https://elpais.com/sociedad/2019/04/02/actualidad/1554207493_844264.html)

Goian jarritako iragarkia kontuan hartuz, Espainian arazo bat dagoela ikusi dugu: hirugarren adineko pertsonen bakardadea. Arazo honi aurre egiteko, osasuntsu dauden, independientek diren eta bakarrik bizi diren pertsonentzako egoitz aurreratua sortu dugu. Beste egoitzekin konparatuz, gurea aurreko atalean aipatutako ezaugarri bereziak ditu.

Gure egoitza leku espezifiko batean kokatuta dago ekintzak zailtasunik gabe egiteko. Horrez gain, gure egoitza Almerian kokatuko dugu, izan ere, hango klima eta tenperatura oso egokiak dira urte osoan zehar hirugarren adineko pertsonentzat. Gainera, irteerak egitekotan gauza asko daude ikusteko. (Irteerak egiteko garraioa gure eskuetan egongo da)

Hurrengo argazkian gure egoitzaren planoak aurkezten dizuegu:



Bisitak egunero egin daitezke baina ordutegi batekin. Lehen esan bezala bi egun lehenago abisatu behar da, baina horrez gain, goizetan 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara zabalik egongo da.